

ESTABLEZIMENDU TURISTIKO HARTZAILEEN INKESTA (THI), 2014ko URTARRILA

Bidaia-irari-sarrerak %5,5 gutxitu ziren urtarrilean Euskal AEko hotel-establezimenduetan

Gaualdietan %7ko jaitsiera izan da aurreko urteko hil beraren aldean

Eustaten datuen arabera, 2014ko urtarrilean 114.653 bidaia-irari hartu dute ostatu Euskal AEko hotel-establezimenduetan, aurreko urteko hilabete berean baino 6.660 gutxiagok; %5,5eko jaitsiera. Bidaia-irari-sarrerak %5,4 gutxitu ziren Araban, %8,7 Bizkaian eta %0,7 Gipuzkoan.

2014ko urtarrilean erregistraturiko gaualdiak: 197.825; iazkoaren aldean %7ko jaitsiera, 14.778 gaualdi gutxiago. Gaualdiak %14,7 gutxitu dira Araban urte artean, eta %10,3 Bizkaian; %2,2 gehitu Gipuzkoan.

1. taula.- Euskal AEko hotel-establezimenduetako gaualdiak, bidaia-irari sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. Urtarrila 2014

	Gaualdiak		Bidaia-irari sarrerak		Batez besteko egonaldia		Betetze-maila (%)			
	2014/01	m / m-12 (%)	2014/01	m / m-12 (%)	2014/01	2013/01	plazaka		gelaka	
							2014/01	p.p.*	2014/01	p.p.*
EUSKAL AE	197.825	-7,0	114.653	-5,5	1,73	1,75	25,2	-2,2	33,7	-2,7
Estatukoak	139.351	-5,0	83.391	-4,4	1,67	1,68	-	-	-	-
Atzeritarrak	58.474	-11,4	31.262	-8,4	1,87	1,93	-	-	-	-
ARABA / ÁLAVA	28.915	-14,7	16.353	-5,4	1,77	1,96	22,2	-3,5	29,8	-3,0
Estatukoak	22.672	-10,1	13.161	-1,6	1,72	1,89	-	-	-	-
Atzeritarrak	6.243	-28,1	3.192	-18,3	1,96	2,22	-	-	-	-
Vitoria-Gasteiz	23.750	-16,2	13.049	-3,7	1,82	2,09	24,9	-4,9	34,4	-4,0
BIZKAIA	98.431	-10,3	57.268	-8,7	1,72	1,75	25,5	-3,3	34,9	-4,4
Estatukoak	69.741	-7,2	41.805	-7,9	1,67	1,66	-	-	-	-
Atzeritarrak	28.690	-17,0	15.463	-10,9	1,86	1,99	-	-	-	-
Bilbao	66.239	-9,9	38.192	-5,4	1,73	1,82	28,1	-5,9	38,2	-7,2
GIPUZKOA	70.479	2,2	41.032	-0,7	1,72	1,67	26,2	0,0	33,9	-0,1
Estatukoak	46.938	1,5	28.425	-0,1	1,65	1,63	-	-	-	-
Atzeritarrak	23.541	3,6	12.607	-2,0	1,87	1,77	-	-	-	-
Donostia / San Sebastián	41.927	3,5	24.478	3,2	1,71	1,71	30,4	-0,8	37,7	-0,6

p.p.* = aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: EUSTAT. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta (THI)

Atzerriko bidaia-irariak %8,4 gutxitu ziren lehengo urteko urtarriaren aldean eta estatukoak %4,4. Araban %18,3 gutxitu dira atzeritarrak eta %1,6 estatukoak. Bizkaian %10,9 gutxitu dira atzeritarrak eta %7,9 estatukoak. Gipuzkoan %2 gutxitu dira atzeritarrak eta %0,1 estatukoak.


Batez besteko egonaldiaren iraupena: 1,73 egun, aurreko urteko urtarrilean 1,75. Araban 2013ko urtarriko 1,96 egunetik aurtengo 1,77ra jaitsi da; Bizkaian 1,75etik 1,72ra; Gipuzkoan 1,67tik 1,72ra luzatu.

Plazakako betetze-maila, Euskal AEn %27,4 izan zen 2013ko urtarrilean eta %25,2 aurtengoan. Araban 2013ko urtarriko %25,7tik aurtengo %22,2ra, ehuneko 3,5 puntu gutxiago. Bizkaian 2013ko urtarriko %28,8tik aurtengo %25,5era, ehuneko 3,3 puntu gutxiago. Gipuzkoan lehengoan plazakako betetze-maila, %26,2. Gelakako betetze-mailan ehuneko -2,7 puntu ditugu

Euskal AEn, %33,7. Araban ehuneko -3 puntu, %29,8; Bizkaian -4,4, %34,9; Gipuzkoan -0,1, %33,9.

Urtarrilean hotel beteenak Donostian (%30,4), Bilbo Handian (%28,6) eta Bilbon (%28,1).

1. grafikoa.- Euskal AEko hotel-establezimenduen betetze-mailaren bilakaera egun motaren arabera (%)



Iturria: Eustat. Establezimendu turistiko hartzaileen inkesta (THI)

2014ko urtarrilean, Euskal AEn, asteburuetan dugu okupaziorik handiena, %29,7; astegunetan %23,4.

2014ko urtarrilean Euskal AEko hotel-establezimenduetako langileak %0,7 gehitu ziren 2013koaren aldean.

Urtarrilean nekazaritza-ostatueta sarrerak %8 eta gualdiak %14 gehitu dira

Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan urtarrilean 7.838 gualdi egin ziren, %14 gehiago aurreko urteko hil berean baino. Bizkaian %15,8ko jaitsiera; Araban %123,9ko igoera eta Gipuzkoan %6,9koa aurreko urteko urtarilaren aldean.

Plazakako betetze-mailan (%7,2) ehuneko 1,2ko puntuko igoera lehengo urteko urtarilaren aldean. Araban ehuneko 5,1 punturen igoera; plazakako betetze-maila %8,6. Gipuzkoan betetze-maila %7,2, 2013ko urtarrilean baino ehuneko 0,8 puntu gehiago. Bizkaian ehuneko puntu 1en jaitsiera; urtarileko okupazioa %6,3.

Euskal AEko nekazaritza-turismoko establezimenduetan, 3.122 bidaiari-sarrera zenbatu dira urtarrilean, aurreko urteko hil berean baino %8 gehiago. Bizkaian %-36,1, Gipuzkoan %+18,9, Araban %+57,7.

Atzeritarren sarrerak: 380, %44,5eko gehikuntza aurreko urtearen aldean eta sarrera guztien %12,2. Estatuko bidaiariak %4,4 gehitu ziren.

Bidaiariko batez besteko egonaldia, 2,51 egun, 2013ko urtarrilean baino luzeagoa.

2. taula.- Euskal AEko landa-establezimenduetako gualdiak, bidaiarien sarrerak, batez besteko egonaldia eta betetze-maila. Urtarrila 2014

	Gualdiak		Bidaiarien sarrerak		Batez besteko egonaldia		Plazakako betetze-maila (%)	
	2014/01	m / m-12 (%)	2014/01	m / m-12 (%)	2014/01	2013/01	2014/01	p.p.*
EUSKAL AE	7.838	14,0	3.122	8,0	2,51	2,38	7,2	1,2
ARABA/ÁLAVA	1.993	123,9	771	57,7	2,58	1,82	8,6	5,1
BIZKAIA	2.045	-15,8	587	-36,1	3,48	2,64	6,3	-1,0
GIPUZKOA	3.800	6,9	1.764	18,9	2,15	2,40	7,2	0,8

p.p.*= aurreko urteko hilabete berarekiko portzentajeazko puntuko aldea

Iturria: EUSTAT. Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkesta (THI)

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

C/ Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz

Prentsa zerbitzua servicioprensa@eustat.es Tlf: 945 01 75 62

THI-Euskal AEko establezimendu turistiko hartzaileen inkestari buruzko prentsa-ohar gehiago

THI-Euskal AEko Establezimendu Turistiko Hartzaileen Inkestari buruzko datu-bankua